

**GAZTELERAZKO ANTE
PREPOSIZIOAREN AURREAN**

Oso preposizio korapilatsua dugu *ante* honek. Hasieran, eta arazoa finkatzekotan, María Molinerren hiztegi ospetsuan¹ ageri diren jakingarriak aitatuko ditut:

«2 **ante**. (Lat. "ante"; v. "avant, avanzar, delante, ventaja") ① (ant.). *Antes*. ② Preposición empleada en vez de "delante de" o "en presencia de". En lenguaje figurado se prefiere a éstas: 'Se crece ante las dificultades. Me rindo ante esas razones'. En sentido material se emplea con cierta solemnidad o en lenguaje literario: 'Se prosternó ante el rey. Ante mí se extendía un paisaje maravilloso'. ○ "Delante de". En lugar tal que se ve la cosa que se expresa o se es visto por alguien que se expresa: 'Estábamos ante las ruinas de Troya. No apareció más ante mí'. ○ "Delante de". Se emplea para expresar la situación que motiva una decisión: 'Ante las dificultades de la empresa, tuvimos que renunciar'. ③ En comparación con la cosa que se expresa: 'Cualquier otra belleza palidece ante la suya'. ④ (n.). *Principio o plato que se tomaba antes de los platos importantes*. ⑤ (id.). *Cierta *bebida del Perú, hecha con frutas, vino, azúcar y especias*. ⑥ (id.). *Postre que se hace en Méjico con bizcocho, huevo, coco, almendra, etc.* ⑦ (id.; Guatemala). *Dulce hecho con harina de garbanzos y otras legumbres*.

V. "PIE ante pie, ante TODO".

¹ MOLINER, María: *Diccionario de uso del español*, 2 liburuki. Gredos. Madrid. 1984. 1. liburukiko 191. or.

Ikus dezagun, zer dioen Espainiako Akademiak arazo honen gainean: «ANTE. Significa delante o en presencia de: Comparación ante el juez; Ante mí pasó».²

Akademiaren beraren hiztegi arauemailearen azken argitaraldian³, María Molinerren adierak berak ageri zaizkigu, beraz, adiera horiei begira egingo dut ondoko azterketa:

Lehenengoa.— Begira diezaiogun María Molinerrek eskaintzen duen ikuspegiari, zertarakoeta euskarazko itzulpenetan ematen den ordaina gaztelerazkoaren kalko hutsa izan ez dadin, behar ez denean bederen:

1) Horrela, bada, antzinako esangura hori denaz bezanbaitan, euskaraz egoki zaion denborazko adberbioa izan daiteke haren ordaina.

2) «*Delante de*» edo «*en presencia de*» adierak bi esangura hartzen ditu: irudizkoa eta gorpuzkorra.

Irudizko esanguran egoki deritzot *-ren aurrean* (eta beraren parekoa den *-ren aitzinean ere*) itzulingurua erabiltzeari, ezik antzinatek datorren usuarioa da (*gehiago da zailtasunen aurrean*); halarik ere, horri beste ordain bat erants dakiok, *datiboa alegia, ze men dagiet berbabide horiei* esaera ere legezkoa da.

Baina hori ez da esangura honetan aurki litekeen adibide bakarra; lagin gisa, Espainian arestian finantzekin zerikusirik izan duen arazo baten gainean emandako albistea azalduko dut (irradi bateko albistegian entzundakoa): «Sandiak honenbeste milioi ezkutatu du *Espainiako Ogasunaren aurrean*...». Zalantzarik ez dago nora jo behar dugun albiste horren jato-

² REAL ACADEMIA ESPAÑOLA: *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española*. Espasa-Calpe, Madrid. 1989. 439. or.

³ REAL ACADEMIA ESPAÑOLA: *Diccionario de la lengua española*. Hogeita batgarren argitaraldia. Real Academia Española. Madrid. 1992. 105. or.

rizko testuaren bila jardun nahi badugu. Izan ere, eta arazoa latza izango ez balitz, aldarre oneko pasadizuak asmatzeko bidea ematen du esaldi horrek. Horretarako betarik ez izan eta zuzenean haren ordain egokiagoa izan litekeen hau ezarriko dut: «*Sandiak honenbeste milioi ezkutatu dio Espainiako Ogasunari...*». Nire aburuan, *datiboa* da euskaraz erabili beharreko baliabidea gazteleraz irudizko esanguran azaltzen den esaldia- ren baliokidea lortzekotan.

Esangura gorpuzkorrean, berriz, egoera bikoitza dugu: a) tokia adierazten denean, *-ren aurrean* (edo beraren baliokidea) da erabili beharrekoa; b) beti ere, erabaki baten zio den egoera adierazteko erabiltzen denean, kalkora lerratu beharrean, *ondoriozko perpausetara* joko nuke, euskarazko ordainaren bila: *enpresaren zailtasunak direla eta, amore eman behar izan genuen*.

3) Adierazten den gauzarekin zerbait erkatzeko erabiltzen bada, *-ren aurrean* izango litzateke egokiena: *edozein edertasun apaltzen da harenaren aurrean*.

Ez dugu hemen aztertuko zernolako ordainak dagozkien María Molinerrek ematen dituen azkenengo adierei, jardun honetatik at gelditzen dira eta.

Bigarrena.– Aurreko guztiak ez ezik, Administrazioak egiten dituen testuetarik askotan *ante* preposizioarekin osoturiko esapide asko ageri da, hala nola «*podrá la interesada interponer recurso de reposición en el plazo de quince días, ante la Tesorería de Hacienda...*» etab. Esapide hori eta beraren gisakoak Administrazioan behin eta berriro ageri dira. Esapide horri euskaraz eman ohi zaizkion ordainak, berriz, *-ren aurrean* itzulintzuren gisakoak dira.

Beraz, garbi dago zein den horren esangura; edozelan ere, berbeta juridikoan irudi bezala erabiltzen izan da, zer esateko- eta erakunde, izakunde edo izaiki batengana jo behar zela adierazteko. Hori garbi uzten du *Manual de estilo del lenguaje*

*administrativok*⁴: «Preposición muy usada en el lenguaje administrativo y que denota la idea de superioridad del órgano administrativo en sus relaciones con los particulares: "... contra esta liquidación puede interponerse recurso... **ante** el Tribunal..."; "ha sido cursada **ante** este Gobierno Civil...". En estos supuestos es más aconsejable utilizar las preposiciones **en** o **al**, respectivamente».

Jakingarri horiek guztiak kontutan hartu beharko genituzke itzulpenari ekiteko. Gainera, badago gizarte eta hizkuntzaren aldetik gogoan hartu behar ditugun beste eragile batzuk: ahalginak egin behar ditugu gure hizkuntzak erabil ez ditzan beste hizkuntza batzuetan, gehienetan esango nuke nik, dagoeneko bazterturik egon eta antzutzat jotzen diren baliabideak; eta Administrazioaren berbeta herriarengandik ahalik eta hurren jartzeko ahalginak egitea nahitaezkoa da.

Bestalde, jatorrizko hizkuntzan, gazteleraz, erabiltzen den literatur irudi horrek oso ondorio bereziak ditu, baina ondorio berdinak lortzen ote dira xede hizkuntzan, euskaran alegia? Zalan-tzak egiten ditut, ezik euskaraz *-n* inesibo biluziak oso gogor zedarritzen baitu bere esparrua *-ren aurrean* itzulinguruaren aldamenean. Horretara, bada, ez da berdin *Bizkaiko Foru Aldundira azaltzea* eta *Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrera azaltzea*. Nire irudiko, *-ren aurrean* itzulinguruak esangura gorpuzkorra du euskaraz, ez irudizkoa, eta horrek galarazten dio, neurri handi batean, gazteleraz dabilen bezala erabilia izaten.

Idazkerari beren beregi egon ez arren, Administrazioak eta berarekin diharduten eragileek elkarrekin izan behar dituzten harremanak non eta zelan hezurmamitu behar diren ikusteko garrantzi handia duen arazoa aztertu behar da: *tonua*. Izan ere, gazteleraz esapide hori erabiltzearen aurka ageri badira,

⁴ MINISTERIO PARA LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS: *Manual de estilo del lenguaje administrativo*. 1. argitaraldiaren 4. inprimaketa. MAP. Madril. 1993. 174. or.

besteak beste, Administrazioaren eta administratuen arteko harremani adiurre larderiatsua ematen dielako ageri dira itzulinguru apalgarri hori ez erabiltzearen alde. Horren ondorioz, beste preposizio batzuk erabiltzeko gomendioa egin dute. Goioan hartu behar da eskuliburu hori Espainiako Gobernuaren zenbait ministraritzatako ordezkariak egin dutela, eta ministraritza horiek jendearekin harreman gehien dutenak direla.

Hortaz, zer egin euskaraz, goian adierazitako esapideak eta beraren gisakoak ageri direnean? Nire aburuz, euskaraz *datiboa* eta *inesibo biluzia* erabiltzea izango litzateke irteerarik onena. Hori ez ezik, nik beste zehaztapen bat egingo nuke, eta bien erabilera erabakitzerakoan bereizgarri bat sartuko nuke, alegia, bizidun eta bizigabeen arteko bereizketa; berbarako, itzulinguruan aitatzen den izaikia biziduna bada (sailburua, foru diputatua, zinegotzia...), edo nortze baten bitartez biziduna bailitzan hartu ahal badugu (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udalak etab.), orduan *datiboa* erabiliko nuke; baina izai-ki hori, zelanbait zehaztearren, norbakoia bada, edo jurisdikzioaren mailetarik adierazten badu, edo tokia eman nahi badu aditzera, orduan *inesibo biluzia* erabiltzearen aldeko naiz. Adibideetara etorrira, honako hau eman liteke:

Contra dicho acuerdo... podrá interponerse recurso de reposición ante la *Excma. Diputación Foral*... como trámite previo a su posterior impugnación ante la *Jurisdicción ContenciosoAdministrativa*...

Erabaki horren aurka... birjarpeneko errekurtsua jarri ahal izango zaio *Bizkaiko Foru Aldundi Txit Gorenari*... *Administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioan* aurkaratu baino lehen egin behar den tramite legez...

Saiotxo honen helburua betea dateke, bestela baitakoan isurtzen zaizkigun erdarakadetarik (lato sensu) honi erreparatzeko balio badu.

Bilbon, 1994, ekainak 23.
Anjel Lobera Revilla